

# **Kalitatezko prozesuak eta kalitatezko azterketak**

*Aintzane Ibarzabal*

*Zabal hedatu da Europan barrena “Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Marko Bateratua”. Euskarazko bertsioa 2005ean eman zen argitarara. A1, A2, B1, B2, C1 eta C2 sailkapena erreferentzia ezaguna da euskalduntze-alfabetatzearen alorrean. Eta beste horrenbeste gertatzen da maila horietako bakoitza zedarrizteko asmoz egindako hizkuntza portaeren deskribapenei dago-kienez ere. Oinarrizko dokumentu horren ildotik beste hainbat lan ere plazaratu dira. Horietako bat da “Relating Language Examinations to the Common European Framework of Reference for Languages: Learning, Teaching, Assessment (CEFR)”. Eskuliburu hori 2009an plazaratu zen. Eta tresna lagungarri bilakatu da Europan hizkuntza ebaluazioan dihar-dutenen artean. Artikulu honetan, eskuliburuaren nondik norakoen berri ematen du artikulugileak, azterketak sortu eta aplikatzeko prozesuan aintzat hartu beharreko alderdiei erreparatuz.*

**Europako  
markotik  
azterketak  
markoarekin  
lotzeko manualera**

Urte batzuk igaro dira *Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebalua-ziorako Europako Erreferentzia Marko Bateratua* argitaratu zenetik. 2001ean argitaratu zen jatorrizko bertsioa ingelesez eta frantsesez, eta 2005ean euskaraz<sup>1</sup>.

Geroztik, Europako Markoa asko erabili da eta oso tresna praktikoa izan da hizkuntzen ikas/irakaskuntzan. Zein izan du ekarpen nagusia, zer aldatu da, zein bere eraginpean egindako ibilbidea, bereziki azterketen arloan?

Brian North liburuaren sortzaileetako bat eta gaian adituak dioenez, Markoak bi ekarpen nagusi egin ditu ebaluazioaren eta azterketen arloan, bata teorikoa eta bestea praktikoa.

---

1. *Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Markoa*, Donostia, 2005

Alderdi teorikoan, elkar ulertzea bideratu du hizkuntzen irakasle eta profesionalen artean eta praktikoan, dokumentuak hizkuntzen ikas/irakas-kuntzan bi galdera nagusiri erantzuten asmatu du: *zer* eta *nola*.

Bi galdera horiei erantzun zaienean (ZER eta NOLA ikasi, irakatsi eta ebaluatu), konparaketak egin ahal izan dira hizkuntzen artean, bai ikas/irakas prozesuan eta bai ebaluazioan, bai ikas mailak zedarritzeko eta bai ikasleen profilak sortzeko.

Izan ere, hizkuntzak ikasteko mailaketa bateratu bat plazaratzearekin batera, Europako Markoak, ikerketa zehatz baten ondorioz, era enpirikoan sei maila zehaztu zituen hizkuntzen ikas-prozesuan (A1, A2, B1, B2, C1, C2), eta horrela, ikasle bakoitzaren profila edo trebetasunez trebetasuneko maila ikusteko, eta aldi berean, profil hori maila batean kokatzeko aukera eman du. Hori, esan dugun bezala, bi galdera nagusiri erantzunez, *zer* eta *nola*.

Ibilbide horiek ezarri zirenetik, ikasleen profilen gaiarekin batera, hizkuntzaren hedapenaren prozesuarena ere azpimarratu nahi izan da, hau da, erdi mailatik aurrera hizkuntzen ikas prozesuan ibilbidea aldatu egiten dela, hizkuntza hedatuz eta sakonduz doan heinean, mailak gainditzeko prozesua moteldu egiten dela edo, beste era batera esanda, tarteak zabalagoak direla maila batetik bestera igarotzeko.

Europako Markoak, gainera, ebaluazioari atal bat eskaintzen dio. Ebaluazioaren hastapenak –*baliotasuna, fidagarritasuna* eta *bideragarritasuna*– aipatzen ditu atalaren hasieran. Ondoren, ebaluazioaren arloko beste gai nagusiak azaltzen dira: proben edukia nola zehaztu (zehaztapenak), deskribatzaileetan oinarritutako irizpideak nola ezarri, deskribatzaileez osatutako eskalak nola erabili (gaitasun-eskalak, neurketa-eskalak), eta proben eta agirien arteko gaitasun-mailen deskribapenak eginez, azterketa sistemen arteko konparazioak nola egin. Bukatzeko, 13 ebaluazio mota zehazten ditu bikoteka.

Aipatuak geratzen dira liburuan, beraz, gerora beste dokumentu garrantzitsu baten muina izango diren gaiak: *Relating Language Examinations to the Common European Framework of Reference for Languages: Learning, Teaching, Assessment (CEFR). Manual, 2009*.

Markotik abiatuta garatzen joan diren egitasmo edo lanen ondorioz argitaratu da Manuala (azken bertsioa, 2009koa). Dokumentuaren hasierako helburua ez zen gerora ezaguna egin dena, hau da, azterketak Markoaren mailekin lotzea. Jatorriz, dokumentu hori azterketak garatzeko, prestatzeko eta haien berri era gardenean emateko sortu zen, etengabeko hobekuntzarako.

Lehen bertsioetan, Europako Markoa hobeto ezagutzeko eta bateratze-saioak egiteko prozedurak azaltzen zituen, besteak beste. Azkenean, dokumentuak azterketak Markoaren mailekin lotzeko prozedura zehaztu du, hiru zeregin nagusi erabiliz horretarako: Markoaren erabileran trebatzea (3. eta 4. atalak) /estandarrak ezartzea (5 eta 6 atalak)/eta balioztatzea (7. atala).

Edozein ebaluazio-probaren edo azterketaren egitekoak dira: azterketen eta ebaluazio-irizpideen zehaztapenak prestatzea, estandarrak edo *cut off* puntuak ezartzea, bateratze-saioak, itemen jarraipena eta berrikusketa, eta proben azterketa estatistikoak egin eta balioztatzea.

Gai horiek guztiak hiru multzo nagusitan biltzen dira:

- Trebatzea.
- Estandarrak ezartzea.
- Balioztatzea.

Ebaluazio arloan, eta azterketen testuinguruan, beti eta aldioro egin beharreko urratsak dira hirurak, *bai azterketa berri bat sortzeko, bai azterketa aldiro azterketen mailari eusteko edo azterketen arteko konparaketak egiteko.*

Egoera edozein dela ere, prozesuaren abiapuntua azterketaren **helburua** zein den ikustea da: ikasleen sailkapen bat egitea, estandarrak ezartzea edo ikaslea maila batean gai/ez gai den erabakitzea, zein ebaluazio mota den, alegia.

Hortik aurrera, Markoak (3. taula) eta Manualak bere dokumentu eta taula zehatzagoetan (A1, A2, A3, A4 eta A5; C1, C2, C3, C4) deskribatzaileak eskaintzen dituzte **edukiaren zehaztapenekin** lanean hasteko. Adibidez, mintzamenean, ekoizpena eta elkarreragina neurtzeko; idazmenean, ahozkotik hurbilago dauden testu informalak eta formalagoak; irakurmenean, testu laburrak eta luzeak, testuaren informazioa eta idazlearen jarrera ulertzeko eta entzumenean, testu laburretan informazio orokorra edota luzeetan xehetasunak jasotzeko.

Taula horien erabileraren gakoa, ikerketaren eta praktikaren ondorioz, deskribatzaile onak bereizten joatea da, maila erabakitzeko giltzarri izango diren deskribatzaileak, hain zuzen.

Tresna horiekin **estandarizazioa** landu behar da, bai harreran eta bai ekoizpenean, esperientzian oinarrituta, laginak kalibratuz eta mugak ezarrituz, hau da, maila jakin bat emateko ikasleak zer/nola egin behar duen erabakiz.

Irizpideak dira neurria, baina ez hutsetik abiatuta, datuak bildu eta kontuan hartu behar dira etengabe, datu horiek asko dute esateko eta. Hala ere, ez da hor amaitzen prozesua, **balioztatu** egin behar dira erabaki guztiak, kanpo balioztatzea eta gutxienez beste metodoren bat erabiliz. Prozesuaren jarraipena egin behar da zikloaren amaiera arte.

Izan ere, estandarrak erabakitzeko lanean edo azterketak zuzentzean, distortsioak izatea normala da, hala nola, itemen zailtasuna erabakitzeko orduan, zorrotz/malgu jokatzaren denean edo joera pertsonalak nabarmentzen direnean. Moderazioa ezinbestekoa da, hots, jarraipena egitea, bigarren zuzenketak edo berrikusketak.

## **Deskribatzaileak eta irizpideak**

Bi osagaiak oinarritzakoak dira azterketa-prozesuetan, baina nondik sortzen dira deskribatzaileak? Estatu Batuetako unibertsitateetan ikasketen amaieran ikasleek maila bat lortzen zuten jakiteko erabiltzen ziren, lan munduan sartzeko prest zeuden ala ez erabakitzeko.

Urtero ikasleei maila bera eskatzen zitzairen. Arau batzuk zeuden eta arau horiek gainditu edo ez gainditu zehazten zuten. Arauetan oinarritutako deskribatzaileak ziren.

Hizkuntzak ikastean, irizpideek hartzen dute garrantzia, ikas-prozesuak jarraipena du ezaugarri nagusi, eta bidea bertikala da. Ikasle bakoitzak bere bidea egiten du eta irizpideen arabera neurtu behar dugu une horretan noraino iritsi den, *zer* eta *nola* egiten duen hizkuntzarekin, berriro ere. Irizpideetan oinarritutako deskribatzaileak dira ikas/irakas-mailak mugatzeko erabiltzen ditugunak.

Irizpide horiek dira gero azterketen arteko loturak (*linking*) eta konparaketak egiteko erabiltzen direnak, laginak ebaluatu, neurtu, kalibratu eta moderatzeko.

Bi osagai horiekin hartutako erabaki oro balioztatu egin behar da, beti ere ahaztu gabe azterketak predikzioa egiteko balio duela. Zertifikazioari edo azterketak gainditzeari errealitateak emango baitio benetako balioztatzea. Erabaki baten arabera, uste da ikaslea gai dela zerbait egiteko eta, frogatu arte, predikzioa da, errealitatea izango da azken frogara, benetako.

## **Prozesuaren hiru egitekoak**

### *1. Trebatu eta prestatu*

Zehaztapenekin hasten da prozedura, Markoaren taulak (edo kurrikulua) erabilia egiten da lan hori. Erakunde bakoitzak aukeratzen du zein izango den bere tresna. Azken urteotan egokitzapenak egin dira etengabe kurrikuluak Markora egokitzeko, batez ere zehaztapen maila handiagoa eta ziurragoa eskaintzen duelako bigarrenak. Hala ere, horrek ez du kentzen testuinguru bakoitzean zehaztapen maila horiek probatu behar ez direnik edo berezitasunak eta egokitzapenak erantsi.

**Trebatze** garaian laginak erabiltzen dira **estandarrik** eta mugakotenen puntuak erabakitzeko.

Azterketa prozesuan trebatze fasea eta prestaketa fasea aldiro egitekoa da: laginetan notak jarri, ekoizpenak ebaluatu, beti maila ongi ulertu ondoren eta **zehaztapenetan oinarrituta**.

Prestaketa faseak ikaslearen mailaz ziur egotea ekarriko du, bai epai holistikoa edo testu bidez, deskribatzaileen bidez balorazio orokorra eginez, eta bai zenbaki zehatzez (adibidez, 20/10 puntu/B1 izateko). Egiteko bat baino gehiago lantzen dira fase horretan, batzuk zenbaki-tan eta beste batzuk ezarritako irizpideen arabera.

Epai seguruak lortu behar dituzte irakasle eta epaileek, eta erreferentzia puntuak; horretarako laginak behar dituzte eta aurrez ezarritako mugako puntuazioak (*cut-off score*).

## 2 Estandarrak ezarri

Estandarrak ezartzea ikasleak maila jakin batean kokatzea da: B1, B2... *Cut-score* edo mugako puntuazioak ezartzea da, maila NON ematen den erabakitzea.

Erabaki horiek taldean hartzen dira, talde trebatu batek egiten du lan hori. Horretarako, Manualak hainbat prozedura edo metodo proposatzen ditu, 10 denera: 5 azterketan oinarrituak, 3 aztertzaileengan oinarrituak eta 2 itemen erantzunen teorian (IRT) eta datu enpirikoetan.

**Estandarrak ezartzea** azterketaren puntuazioa finkatzea ere bada, zenbakitan neurtzen diren trebetasunetan, zein den erantzun zuzenekin lortu beharreko gutxieneko puntuazioa, maila jakin bat lortzeko. Harrerazko trebetasunetan erantzun zuzenen batuketa da eta ekoizpenean hainbat alderdi baloratu ondoren lortutakoa. Trebetasun bakoitzaren eta azterketaren gutxieneko emaitza zein izango den erabakitzea da estandarrak ezartzea.

Prozedura horren beste erabilera izan da azterketa bat Markoaren maila jakin batekin lotzea (*linking*). Azterketaren gutxieneko puntuazioa Markoaren maila jakin batekin lotzeko *cut score* puntua erabaki behar da, hori izango baita emaitza estandarra *gai* izateko. Eten horiek bi mailen artean kokatu ohi dira, B1/B2ren artean, adibidez.

Lehenago aipatutako hamar prozedura horietako bat edo batzuk erabiltuta, ezartzen dira estandarrak.

## 3. Balioztatu

Azterketa prozesuetan balioztatzea ez da azkenerako utzi behar, hasieratik hartu behar da kontuan. Helburuak betetzen ari diren ikusi, urrats guztiak ongi egin diren, etengabe ziurtatu behar da. Datuak, frogak, dokumentuak bildu behar dira bidean.

**Balioztatzea** etengabeko ziurtatzea edo *checking*-a da, azterketen ziklo osoan eta urrats bakoitzean egin behar dena.

Balioztatzeak ebidentziak edo frogak jartzen ditu azterketaren prozesu osoa “fidagarria” dela ziurtatzeko. Erantzuna, baina, ez da izango “azterketa balioztatua dagoen ala ez” balioztatze neurriak edo mailak izango ditu.

Balioztatuko dira: edukia, azterketa bera, atalak eta galderak, estandarrak eta puntuazioak, zuzenketak eta emaitzak.

**Edukia balioztatzea.** Azterketaren edukia kurrikulua mugatzen du. Kasu batzuetan Markoaren edukia hartzen da kontuan, azterketa Markoaren mailekin parekatu nahi denean.

Edukiaren gaian beti garbi utzi behar da Markoaren edukitik zer hartu den azterketan eta zer utzi den bazterrean. Dena dela, Markoarekin loturak egiteko izan ala ez izan, edukiaren zehaztapenak egitekoak prestatzeko beti aurrean izango dira.

**Azterketa probatzea.** Azterketa jarri aurretik, hainbat unetan datuak bildu behar dira. Pilotajea materiala probatzeko egiten da, anbiguotasunak saihesteko, galderen eta instrukzioen argitasuna eta ulergarritasuna probatzeko, lehen inpresioa izateko itemen eta egitekoen zailtasunaz eta behar den denboraren kalkulua egiteko.

Eskala txikian egin daiteke, baina azterketaz ahal den informaziorik osoena ateratzeko, elkarrizketak eta galdeketak onak dira. Horrek saihestuko ditu azterketa garaiko ezusteak. Feedbacka jaso galdeketen bidez eta *cognitive labs* (azterketak ozenki egitea galderak nola ulertzen diren, erantzuteko erabiltzen diren estrategiak eta egindako urratsak ikusteko). Ikasle eta irakasleek har dezakete parte.

Itemen arteko menpekotasunak arreta berezia eskatzen du, izan ere, item bakoitzak zerbait neurtu behar du konstruktoan. Adibidez, *i* ongi erantzuteko *j* ongi erantzun behar bada, edo *j* gaizki erantzuteak *i* gaizki erantzutea badakar, elkarren menpeko dira. Item horiek arriskuak dira bai estandarrak ezartzeko eta bai fidagarritasunerako. Menpekotasun horiek *pilotaje* eta proba garaian aztertu behar dira eta feedbacka jaso.

**Azterketaren aurreko proba.** Denbora neurtzeko erabiltzen da. Bete gabe edo egin gabe utzitako itemak aztertzeko.

Denbora zehatza idatzi behar da ariketa bakoitzean. Ikasle berberekin bi azterketa eredu parekoak diren ikusteko erabiltzen da proba hau. Bi urte aurretik proba hori egitea da onena, ikasle horiek eredu ez gogoratzeko. Ikasleek ez dute ikusiko urteko proba, baina bi probak parekatuak geratuko dira.

Beste aukera da blokeetan egitea proba, hainbat eredutako item multzoak erabiliz. Ikasle guztiek multzo kopuru bera dute era horretan, baina azterketa osorik ez. Hiru eredu zatika, adibidez (1,2; 2,3; 3,1). Blokeak heterogeneoak izango dira, bai edukian eta bai zailtasunean. Balioztatzeko *itemen erantzunen teoria* IRT erabili ohi da.

**Alderdi psikometrikoak.** Itemen zailtasun-maila eta diskriminazio-indarra balioztatu behar dira. Ikasle taldeekin probatu behar dira eta talde bera denean kontuz ibili beharko da, taldearen mende daude eta emaitzak. Item blokeak erabiltzen badira heterogeneoak eta azken probatik ahalik eta hurbilen gotea da onena.

**Estandarrak ezartzeko unea.** Estandarrak ezartzeko datuak azterketa egin aurretik biltzen dira. Ez dira azterketa testuinguruan biltzen ordea, eta horregatik zuzenketa neurriak ezarri beharko dira eta galdeketa egin ikasleei, proba hori egin ondoren.

Estandarizazioa balioztatzeko trebatze-garaia ezinbestekoa da eta prozedura zuzena izan dadin, bi balioztatze mota nagusi erabiliko dira: **barne**

**balioztatzea** (epaileena eta epaileen artekoa, adostasuna, item arazotsuak, sendotasun-indizeak) **eta kanpo balioztatzea** (balioztatze gurutzatua) edo beste proba batekin konparatzea.

Hiru egitekoz osatutako prozedura hori erabili da hainbat hizkuntzako azterketak Markoaren mailekin lotzeko eta, ondorioz, agirien arteko baliokidetzak egiteko.

Gure kasuan, euskara agirien arteko baliokidetzaren prozesuan hori egin zen: Markoaren mailak erreferentziatzen hartuta, **euskara agiriak elkarren artean parekatu**. Ez azterketaz azterketa Markoaren mailekin loturak eginez, hori beste lan bat da, interesgarria azterketen mailak egonkorrak izan daitezen, enpirikoki kokatuak eta epe luzera erreferentzia ziurrak, gorabeherarik gabeak.

Hiru egitekoz osatutako prozedurak, gainera, bide ezin hobea eskaintzen du, adibidez, trebetasun hartzaileetan *cut-score* edo estandarrak mailaka ongi finkatzeko, zehaztapenak berrikusteko eta azterketa estatistikoen bidez ziurtatu eta balioztatzeko.

Kalitateaz kezkatzen dira Manualaren egileak eta, horregatik, hasieratik bertatik, lehen orrian bertan aipatzen dute: “Manualak aukera ematen die –azterketari, erabiltzaile, irakasle eta profesionalei– azterketaren **kalitatea aztertzeko** eta, prozesu horren ondorioa Markoaren mailekiko lotura eskaera bezain garrantzitsua da” (Manuala, 2009).

Dena dela, Manuala ezaguna egin da azterketak Markoaren mailekin nola lotu erakusten duelako. Horretarako, edukia zehaztapenekin erkatzea, laginen puntuazioak Markoaren laginekin gurutzatzea edo kanpo balioztatzea ezinbesteko dira. Azterketa bat B1 dela esateko nahitaezko bidea da hori.

Hala ere, **Markoarekiko loturak ez du baliorik azterketak berez baliorik ez badu**. “Egokia ez den azterketa bat ez da egokiagoa izango Markoarekin lotura egiteagatik”. Adibidez, prozedurarik ez badu aztertzailerik guztiek berdin jokatzeko, azterketa berriak aurrekoen maila berekoak ez badira, azterketak ez du barne-konsistentziarik edo sendotasunik izango.

Hori ez gertatzeko, praktika ona aipatzen da, Manualaren 7. atalean bereziki, eta irakurlea 10. orrian, oinarriko liburuetara bideratzen du (Alderson, 1995, Milanovic, 2002, Weir (1993) edo Into Europe liburuak, besteak beste).

Markoak zabalduko bidetik, Manualak ere erreferentzia bateratuak jartzen ditu mahai ganean azterketa ereduak, baita hizkuntza desberdinetakoak ere, parekatzeko, berdina izan gabe. Bi ikasle maila berean daudenean, arrazoi desberdinengatik dauden bezala, bi azterketa B1 izango dira, berdina izan gabe. Profil bera izango dute, baina ezaugarri desberdinez osatuta.


Metodologia ezarri, psikometria erabili eta txostenak egin, hori egin behar da, egia ez baitago inoren esku. Egiara hurbiltzen joatea da helburua.

Azterketa bat B1 izatea akordioa da, adostasuna. Adostasun hori ongi formulatzen bada, gauza bera izango da testuinguru desberdinetan.

Balioztatze-ikerketek emango diote Markoari zehaztasun handiagoa. Hori bideratzeko Manuala tresna ona da.

Azterketak nola prestatu (prozedura): Europako Markotik abiatuta, dokumentuan trebatzea da abiapuntua, ondoren mailako zehaztapenak idaztea eta prestaketa, mailako estandarrak ezartzeko. Fase horiek berak errepikatuko dira azterketa bat sortzeko. Irudian ikusten da, azterketen balio-kidetzak zer oinarri duten.

.1:



Manuala, 2009

**Kalitatezko azterketak**

Azterketa-prozesua kalitatezkoa izateko atal eta une guztiak balioztatu behar direla esan dugu, eta horrenbestez, baita azterketa bera ere, bertan biltzen baita prozesu osoaren muina. Balioztatzeaz gain eta batera, praktika onak<sup>3</sup> eta kode etikoak dira beste tresna baliotsuak.

2. Azterketak Europako Markoaren mailekin lotu nah direnean aukeratzen da eskema hori.
3. EALTaren gida-lerroak hizkuntza-probetan eta hizkuntzen ebaluazioan jokabide egokia izateko.



Sauli Takala adituak 50 urte eman ditu ebaluazioaren arloan eta, jakin-duria urteetan bildu ondoren, patxadaz eta ziur hitz egiten du, azterketen inguruko ohiko galderei buruz.

Nola erabaki itemen zailtasun-maila, itemen kopurua, galderen diskriminazio-maila, azterketen eta emaitzen fidagarritasuna, ariketa-mota edo formatu onak.

Ez dagoela erantzun errazik esaten du. Oinarrizko galderak egiten ditu, galdera funtsezkoetan eta soiltasunean finkatzen ditu kalitatezko azterketak.

Azterketak zer funtzio betetzen duen gogorarazten du: ikasitakoa ebaluatzeko (*of*), ikasi bitartean ebaluatzeko (*in*) edo ikasteko (*for*) ebaluatzea dira aukerak.

Testuingurua edozein dela ere, azterketak nolako eragina duen kontuan hartu, eta atzera eragina positiboa izatea dira bere gogoeta azpimarragarrienak.

Gainera, hiru galdera oinarrizko proposatzen ditu azterketa bat jartzeko unean: *Zertarako? Zer? Nola?*

Azterketa-testuinguru ugari dago, aniztasuna da nagusi, ez dago formatu bikain bakarrik, kultura ezberdinak daude eta modak ere eragina du.

**Konstruktua** da abiapuntua (edukia eta edukiaren zehaztapenak), **egitekooak** erabakiko dira ondoren eta **ebaluazio-zehaztapenak**. Hiru osagaien zehaztapenak balio handiko dokumentuak dira.

.2:



*Figueras, 2010*

4. Markoa edo kurrikuluak erabiltzen dira azterketen zehaztapenak egiteko.

Azterketa-prozesuan une guztien jarraipena egin behar bada ere, denek ez dute garrantzi bera, hasierakoak dira garrantzitsuagoak. Azterketa txar batekin, adibidez, alferrik da emaitzen estatistikak egitea; azterketak ongi probatzea ere ez da beti posible izaten. Kalitatea hasiera hasieratik ziurtatu behar da, hor baitu oinarria.

#### *Azterketa baten ibilbidea*

- Plana.
- Edukia definitu.
- Zehaztapenak idatzi.
- Testa diseinatu.
- Testa egin; probatu (probatu, zuzendu, feedbacka jaso, itemak errebisatu, onartu, baztertu; eskala handian eta txikian probatu).
- Testa jarri.
- Puntuazioa ezarri/ Gai/ez gai non.
- Itemen bankua.
- Txostena egin.

#### *Zein da azterketa ona?*


“Ikasleek **dakitena erakusteko** aukera ematen duena da azterketa ona. **Informazio fidagarria** ematen duena, benetako gaitasunak neurtzeko eta emaitzen garantia duena. **Praktikoa, eraginkorra, ekonomikoa eta onuragarria**” (S. Takala, 2010).

#### *Zer behar du horretarako?*

- ✓ Zehaztapen onak
- ✓ Egiteko multzo egokia (trebetasunak, gaiak, testu mota eta generoak...)
- ✓ Instrukzio argiak
- ✓ Formatu zabalak eta egokiak
- ✓ Puntuazio irizpideak garbiak egitekoekin lotuta
- ✓ Emaitza zuzenak (prestaketa, feedbacka eta esperientzia)

#### *Itemekin, galderekin, egitekoekin... zer egin?*

.3:



- ✓ Itemak eztabaidatu
- ✓ kontrol zerrendak erabili
- ✓ testuaren zailtasuna neurtu
- ✓ itemaren argitasuna
- ✓ aukera onargarriak
- ✓ testu multzoak itemarekin duen lotura
- ✓ inferentziarik egin behar den
- ✓ ...

.4:

<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Itemak errebisatu</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>* Edukia (baliotasuna); itema bat datorren espezifikazioekin (eduki, formatuan)</li> <li>* Zailtasuna (aurreikusi)</li> <li>* Iraingarri ez, estereotiporik ez, talde batentzat errazagoa ez izatea</li> <li>* Ez galdetu erantzun pertsonalik, gustuak adieraztea eskatzen duten galderak</li> <li>* Egitekoa edo itema sortzea zaila bada, hobe da berria idaztea</li> <li>* Errutinarekin kontuz ibili, beti ikuspegi eta joera bera ez erabili</li> </ul> <p style="text-align: center;">* * *</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>* Argia, zehatza, osoa den</li> <li>* Gramatika arauak betetzen dituen</li> <li>* item askea den</li> <li>* Nahigabeko pistarik ematen duen</li> <li>* Trikimailurik duen</li> <li>* Material nahasgarririk</li> </ul> </li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>* Bestelako akatsik</li> <li>* Formatu zaila edo bitxia den</li> <li>* Ikaslearen ezagutza neurtzen duen, beharrezkoa duen ezagutza hori galderari erantzuteko</li> <li>* Edukia zuzena den, datuak zuzenak diren</li> </ul> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Puntuazio irizpideak</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>* Erraz ulertzen diren</li> <li>* Azalpen egokia ematen den emaitzetan</li> <li>* Instrukzioekin bat datozen</li> <li>* Zehatza</li> <li>* Interpretatzen erraza</li> </ul> </li> </ul> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Erantzunak</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>* Lagin nahikoa eta ona den</li> <li>* Notak, puntuazioak adostuta dauden, fidagarriak diren, azterketa estatistikoak egiten diren</li> </ul> </li> </ul>
---	---

<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Itemen zailtasun maila aztertu</b> %50eko zailtasunak ongi diskriminatzen du, baina <b>zoriz asmatzea saihesteko</b> beste kopuruak (p-value) erabili behar dira, altuagoak: %75 egia/gezurra eran, %67 a, b, c, aukera anitzekoekin, %62 a, b, c, d.</li> <li>• <b>Itemen diskriminazioa</b> Zuzen erantzuten dutenak %95 direnean, diskriminazioa .19, baina %75 bada berriz, .92.</li> <li>• <b>Probaren luzera eta fidagarritasuna</b> Item gehiago jarrita erroreak zuzentzen dira. Test luzeak fidagarriagoak dira. 25 item .70; 35 item .76; 43 item .80; 54 itemekin .90eko fidagarritasuna lortzen da. Itemak homogeneoak izatea ezinbestekoa da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Testuen hedapena zaindu</b> Testuen irakurgarritasuna, ulergarritasuna, hiztegia, neurria, testuen luzera, ereduak, hots, testuek norainoko hedadura duten. Emaitzak egonkorragoak dira hiztegi hedapena zabalagoa denean. Gainera, eredu desberdinek, testu labur eta anitzek emaitza egonkorragoak dituzte, luzeek eta urriek baino.</li> <li>• <b>Distraktore kopurua</b> Ahal diren guztiak, baina 3ko aukerak (a, b, c) dirudi muga naturala. Abantaila txikia dute aukera gehiago dituztenak, zaila baita aukera bakoitzak bere lana ongi egitea. Item gutxiagorekin asmatzea errazagoa da. Item kopurua igota kontontzen da arazoa. Item kopurua gehituta, infinitesimala da asmatzeko aukera.</li> </ul>
---	--

Takala, 2010

Laburtuz, kalitatezko azterketak prestatzeko oinarri teorikoa beharrezkoa da, esperientzia sendoa, datuetan oinarritua, baita gogoeta, berrikusketak egitea eta etengabe feedbacka jasotzea ere. Adituak eta aldizkari espezializatuak iturri ona dira eta *praktika ona* jarrera, bidea eta ahalegina.

Bai Europako Markoak eta bai Manualak prozedurak eskaintzen dituzte kalitatezko azterketa prozesuak bideratzeko, eta prozesu horiek ongi balioztatuak egoteko: zehaztapenetatik lanean hasten denetik, azterketen diseinuan zehar, prestaketan eta estandarrak ezartzean, azterketak egiten direnean, baloratzen direnean, emaitzak aztertzean eta feedbacka jasotzean.

Prozedura bera proposatzen da bai azterketak Markoaren mailekin lotzeko eta bai azterketak sortzeko.

Estatistika lagungarria da une askotan, batzuetan hizkuntza irakasleoi beldurra ematen badigu ere. Izan ere, badira erabilera erraz eta praktikoak, estandarrak ezartzeko eta azterketak balioztatzeko, bereziki.

Ahaztu gabe ikerketan eta esperientzian oinarritutako adostasuna, akordioak eta konbentzioak direla sistemaren euskarri.

Prozesu sendo eta ziur batek eta kalitatezko azterketek onura ekarriko dio ikas/irakaskuntzari, ez helburuak bete dituen ikasleari edo agiri bat eskuratzen duenari bakarrik, prozesuari berari ere bai.

Hizkuntzak irakasten diren erakunde eta testuinguruetan ikas/irakas mailen jarraipena egitea ezinbestekoa da, *zer* eta *nola* (ikasleek zer ikasi duten/zer egin dezaketen eta nola) galderei erantzun beharko zaie. Testuinguru horietan ez da hutsetik abiatuko, tresna batzuk lehendik ere ezagunak dira. Tresna horiek ongi erabiltzen jakitea, hobetzen joatea, etengabeko hobekuntzan, izango da bidea.

Izan ere, lan hori eskuartean dutenei dagokie tresnak ahalik eta erarik bidezko eta zuzenenean, berdintasuna ziurtatuz, era fidagarri eta praktikoa erabiltzea. Bigarren zatia ikasleak berak egin behar du, berari baitagokio ikasteko ahalegina, berak eta ez beste inork egin behar du bidea, eta hori ongi daki hizkuntza bat ikasteko abenturari ekiten dionak. Ebaluazio arloko profesionalak bidea zehaztu eta aurrera egiteko tresnak besterik ezin dituzte eskaini. Hori ere ez da lan makala.

## **Bibliografia**

- Alderson, J. C., Clapham, C. and Wall, D.** 1995. *Language Test Construction and Evaluation*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Alderson, J.C.,** *Series editor:* INTO EUROPE.
- Council of Europe.** 2001. *Common European Framework of Reference for Languages: Learning, Teaching, Assessment*: Cambridge University Press.
- Council of Europe.** 2009. *Relating Language Examinations to the Common European Framework of Reference for Languages: Learning, Teaching, Assessment (CEFR). Manual, 2009.*
- Europako Kontseilua.** 2005. *Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Markoa*. HABE eta Hezkuntza Saila).
- Milanovic, M.** 2002. *Language Examining and Test Development*. Strasbourg: Language Policy Division, Council of Europe.
- North, B.** 2000a. *The Development of a Common Framework Scale of Language Proficiency*. New York: Peter Lang.
- North, B.** 2000b. Linking Language Assessments: an example in a low-stakes context. *System* 28: 555–577.
- North, B. and Schneider, G.** 1998. Scaling descriptors for language proficiency scales. *Language Testing* 15/2: 217–262.
- Weir, C.** 1993. *Understanding and Developing Language Tests*. Hemel Hempstead UK: Prentice Hall.